


## Ekainaren 5a, Ingurumenaren Munduko Eguna

***Ingurumenaren iraunkortasunari eusteko jokaeretatik, birziklatzea da gazteen artean zabalduen dagoena.***

Ingurumenaren Munduko Eguna dela-eta, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei eta ingurumen aldetik iraunkorrak diren aztura ohikoenei buruzko datu batzuk eskaintzera dator [Gazteen Euskal Behatokia](#). Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiak 2010eko azaro-abenduetan gauzatu zuen ikerketa batetik ateratakoak dira.

Lau gaztetik hiruk (%76) etxeko zaborra hondakin-motaren arabera bereizten dute, birziklatzeko asmoz. %71 uraren kontsumoa murrizten ahalegintzen dira eta beste horrenbeste berogailuarena edota aire egokituarena. %69k Garbiguneak erabiltzen dituzte ez dabilzan etxetresna eta aparatu elektrikoak botatzeko; %67k kontsumo apaleko bonbillak erabiltzen dituzte etxean; %64k garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute, edo autoa partekatu ohiko joan-etorrietarako; %63k norberaren orgatxoak edo poltsa daramate erostetak egiteko; eta %52k tokiko eta sasoiko fruta eta barazkiak erosten dituzte.

Kontsumo iraunkorarekin lotutako bestelako aztura batzuk daude, baina gazteen erdiek baino gutxiagok praktikatzen dituzte sarritan: %34 pakete gutxi daramaten produktuak erosten saiatzen dira; %32 produktu birziklatuak erosten (tonerra, papera eta abar); %18 produktu batzuk ez erosten ahalegintzen dira, ingurumen-arrazoiak direla-eta; eta %17k produktu ekologikoak edo ekolabeldunak erosi ohi dituzte.




Jokaera horiek zabalduago daude adinean gora egin ahala, garraio publikoa erabiltzea izan ezik, aurkako joera duena; hau da, zenbat eta nagusiago, txikiagoa da garraio kolektiboa erabili ohi dutenen kopurua.

Aztura horiek guztiak ohikoagoak dira emakume gazteengan gizon gazteengan baino.

Etxean energia aurrezteko har daitezkeen neurriei dagokienez, gazteak oso prest leudeke elektrizitate-kontsumoa murrizteko (%92), uraren kontsumoa apaltzeko (%92) eta berogailuaren edo aire egokituaren kontsumoa txikitzeko (%90).

Gainera, gazte gehienak prest daude hondakin gutxiago sortzeko (%89), joan-etorrietan garraio publiko kolektiboa erabiltzeko, oinez ibiltzeko edo bizikletaz mugitzeko (%83) eta erabili ostean botatzeko produktu gutxiago erosteko (%76). Gazteen erdiak (%49) prest leudeke produktu ekologikoak erosteko, garestiagoak izan arren.



Emakume gazteek prestasun handiagoa dute neurri horiek hartzeko gizon gazteek baino. Ez dago alde handirik adinaren arabera, garraio publikoa erabiltzeko, oinez ibiltzeko edo bizikletaz mugitzeko prest egoteko joeran izan ezik: adinez gazteagoak direnek prestasun handiagoa dute.